

-1996-

### **1996ko urtarrilak 6**

“Idazle txarra naiz. Ez naiz argia ikusteko benetako merezimendurik duen ezer idazteko gauza. Ez naiz idazle izateko behar diren dohainen jabe eta ez dut neure aldetik ere behar adinako ahaleginik egiten ezintasun hori gainditzeko. Pena eta auzo-lotsa baino ezin sentiaraz dezake ni bezalako idazle txatxar baten jardun erridikuluak. Baina ezin naiz hala ere isildu, ezin diot idazteari utzi, ezinezkoa zait idazteko ametsa ahaztea. Alferrik da nire ahalegin penagarrien antzutasunaren kontzientzia argia izatea ere. Ezin naiz isildu eta ez naiz isilduko. Idazle txarra izaten jarraituko dut beti beste erremediorik gabe.”

### **1996ko urtarrilak 12**

Inon gustura ez gaudelako maite dugu bidea. Beti behar ez den tokian gaudela iruditzen zaigu baina dabilenari barkagarri zaio behar ez den tokian egotea, dabilenari iritsi arteko tartea geratzen zaio esperantza.

### **1996ko otsailak 22**

Beharbada egun batean barruan ditudan ezinegon, desosegu, gorroto eta txikizio grina guztiak hotzean eta zehatz aztertu, azaldu eta zurrizteko gauza izango naiz. Arimarik gabeko traidore nazkagarria izango naiz orduan.

### **1996ko martxoak 18**

Neure akatsak aitortzeko dudan erraztasuna da, nire ustez, nire bertuterik handienetakoa. Baina neurritik kanpora eramana, azken muturreraino puztua, akats da bertutea ere, eta nire kasuan horixe ez ote den gertatzen pentsatzen hasita nago.